



HEZIBERRI 2020 PLANAREN

HEZKUNTZA EREDU PEDAGOGIKOAREN

ARABERAKO EBALUAZIO SISTEMA

PROPIOA

1. Zer da ebaluazioa?

Erabakiak hartzeko informazioen biltze eta balorazio prozesu sistematikoa da.

2. Zertarako ebaluatzen da?

Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoaren **azken helburua hobekuntza** da. Hobekuntza honela ulertuta: **ikasle guzti-guztien** hobekuntzatik abiatuta, **taldearen zein ikastetxearen** hobekuntzara **eta gure hezkuntza sistema osoaren hobekuntzara** helduz.

3. Beharrezkoa da ebaluazioa?

Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoaren **gainerako osagaietatik** (oinarrizko konpetentziak, helburuak, edukiak eta metodologia) ebaluazioa **ezin bereiz daitekeen curriculumeko osagaia** da eta zentzua izango du bakar-bakarrik haien arteko koherentzia bermatzen bada.

4. Zeintzuk dira Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak proposatzen duen ebaluazio ereduak?

- **Hobekuntza.** Ebaluazioaren **helburu nagusia** hobekuntza da beti, ikasleena (**ikaskuntza pertsonalizatua**), ikastetxearena



(**hobekuntza planak**) eta hezkuntza sistema osoarena (**planifikazioa, lerro estrategikoak eta irakasleen formakuntza**). Ebaluazioa **ez da inoiz erabili eta ezin da erabili** ikastetxeen arteko rankingak egiteko.

- **Osagarritasuna barne-ebaluazioaren eta kanpo-ebaluazioaren artean.** Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak **oinarrizko kompetentzia guzti-guztien ebaluazioa** aurreikusten du. Kanpo-ebaluazioaren bitartez oinarrizko kompetentzia guztiak ebaluatzea ezinezkoa da. Batzuk barne-ebaluazioak bakar-bakarrik ebalua ditzake. Hori dela eta, ikastetxeen hobekuntzarako proposamenak kanpo-ebaluazioaren zein barne-ebaluazioaren emaitzak modu osagarrian kontutan hartuz egin beharko dira.
- **Koherentzia. Hezkuntza eredu pedagogikoarekin erabat koherentea den** ebaluazioa da. Beraz, **kompetentzietan oinarritutako** ebaluazioa da eta etapa bakoitzaren amaieran ikasleek lortu beharreko **irteera profila** hartzen du erreferentzia. Horrez gain, ebaluazioa hezkuntza eredu pedagogikoaren **gainerako osagaietatik** (oinarrizko kompetentziak, helburuak, edukiak eta metodologia) **ezin bereiz daitekeen curriculumeko osagaia** da.
- **Erantzukizuna eta lankidetzeta.** Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak proposatzen duen ebaluazio eredu irakasle taldearen **eginkizun nagusi bat** da. Baina hezkuntza komunitate osoaren (irakasleak, ikasleak, familiak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila) **erantzukizun partekatua** da.



Erantzukizun partekatu honek inplikaturako eragile guztien **lankidetz**a eskatzen du.

- **Berrikuntza eta erronka** hezkuntza sistemarako. Gure hezkuntza sistemaren ezaugarri nabarientarikoa da **hausturarik gabe aurrera egiteko gaitasuna**, betiere hezkuntza sistemaren ibilbide luzea eta emankorra kontutan hartuta. Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak proposatzen duen kompetentzietan oinarritutako ebaluazioak aurrera pausua dakar. **Berritzailea** da eta **oinarrizko zehar kompetentzien ebaluazioan** bere indarra jartzen du. Dena dela, nahiz eta kompetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegia Europako hezkuntza sistemetan zabaldu, oraindik ez dago oinarrizko kompetentzia guztiak, zehar kompetentziak diziplinarretan txertatuta, ebaluatzeko prozeduren eta tresnen multzo sendorik. Gure hezkuntza sistemak eta Europako hezkuntza sistemek **komunean daukaten helburu estrategikoa eta erronka** da.

5. Zer da ikasleen irteera profila?

Etapa bakoitzaren amaieran, **hezkuntza helburuak eta bizitzaren esparru eta egoera guztietan moldatzeko** ikasleek lortu behar duten **oinarrizko kompetentzien** multzoa da.

6. Zer dira oinarrizko kompetentziak?

Pertsona guztiek **beren burua garatzeko, herritar aktiboak izateko, gizarteratzeko eta lan egiteko** behar dituzten kompetentziak dira.

7. Zer oinarrizko kompetentziak planteatzen ditu Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak?



Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak oinarrizko zehar kompetentziak eta oinarrizko diziplina baitako kompetentziak planteatzen ditu.

8. Zer dira oinarrizko zehar kompetentziak?

Bizitzaren eremu eta egoera guztietako problemak (pertsonalak, sozialak, akademikoak eta laboralak) **ganoraz konpontzeko** balio dutenak, bai diziplina-arlo guztiekin lotutako egoeretan, bai eguneroko bizitzako egoeretan.

9. Zeintzuk dira oinarrizko zehar kompetentziak?

Hezkuntza eredu pedagogikoak jasotzen dituen bost oinarrizko zehar kompetentziak honako hauek dira:

- **Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko** kompetentzia.
- **Ikasten eta pentsatzen ikasteko** kompetentzia.
- **Elkarbizitzarako** kompetentzia.
- **Ekimenerako eta ekiteko espiriturako** kompetentzia.
- **Izaten ikasteko** kompetentzia.

10. Zer dira oinarrizko diziplina baitako kompetentziak?

Bizitzaren eremu eta egoeretako problemak (pertsonalak, sozialak, akademikoak eta laboralak) ganoraz konpontzeko balio dutenak, eta, horretarako, **diziplina-arlo jakin baten baliabide espezifikoak** behar dituztenak.

11. Zeintzuk dira oinarrizko diziplina baitako kompetentziak?

Hezkuntza eredu pedagogikoak jasotzen dituen zazpi oinarrizko diziplina baitako kompetentziak honako hauek dira:

- **Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako** kompetentzia.
- **Matematikarako** kompetentzia.
- **Zientziarako** kompetentzia.
- **Teknologiarako** kompetentzia.
- **Gizarterako eta herritartasunerako** kompetentzia.



- **Arterako** konpetentzia.
- Konpetentzia **motorra**.

12. Zertan datza Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak proposatzen duen konpetentzietan oinarritutako ebaluazioa?

Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak **oinarrizko konpetentzia guzti-guztiak**, zeharkakoak zein diziplina baitakoak, **ebaluatea** planteatzen du. Edukiak (adierazpenezkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak) ebaluatu behar dira baina batez ere **ebaluate behar da ikasleek nola erabiltzen diren denetariko baliabideak**, erronkei edo arazoei aurre egiteko. Konpetentea izateko, denetariko baliabideak erabili behar dira erronkei edo arazoei aurre egiteko.

13. Zer ebaluazio motak aurreikusten dira Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoan?

Hezkuntza eredu pedagogikoak hurrengo ebaluazio motak aurreikusten ditu:

- Ebaluazio **diagnostikoa**
- Ebaluazio **formatiboa**
- **Azken** ebaluazio **sumatiboa**

14. Zertan datza Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoaren ebaluazio diagnostikoa, noiz egiten da eta nork egiten du?

Izenak adierazten duen bezala, ebaluazio diagnostikoaren helburua diagnostiko bat egitea da, hau da, **ikaskuntza prozesuaren egoera ezagutzea hobetzen** lagundu ahal izateko.

Ebaluazio diagnostikoa hezkuntza prozesuaren edozein momentutan egin daiteke, hasieran, prozesuan zehar, edo bukaeran.

Ikastetxeak berak egin dezake (barne-ebaluazio diagnostikoa) **edo kanpokoa** izan daiteke.



15. Zeintzuk dira barne-ebaluazio eta kanpo-ebaluazio diagnostikoaren arteko desberdintasunak?

Barne-ebaluazio diagnostikoa ikastetxeak egiten du, hau da, **irakasleek** erabakitzen dute **zer eta nola ebaluatu**. Irakasleak frogan **planifikazioaren, diseinuaren eta aplikazioaren arduradunak** dira. Haiei dagokie baita emaitzak helaraztea ere, bai ikasleei bai familiei.

Kanpo-ebaluazio diagnostikoa Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak egiten du **Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI-IVEI) adituen bitartez**. Haiek gure hezkuntza sistemarako berariazko frogak **planifikatzen eta diseinatzen** dituzte eta ikastetxetik kanpoko pertsonalekin **frogen aplikazioa koordinatzen** du. Horretaz aparte, ebaluazio txostenak egiteko eta ikastetxeetara helarazteko ardura hartzen du. Gainera informe tekniko bat egiten du, non gure hezkuntza sistemaren emaitza orokorren azterketa sakona egiten den eta hobekuntzarako neurriak proposatzen diren.

16. Barne-ebaluazioa eta kanpo-ebaluazio diagnostikoak, zertan datoz bat?

Ebaluazio diagnostiko biak hezkuntza-eskumenak dituen sailaren eta ikastetxeen **erantzukizun partekatua** dira.

Bien **azken helburua hobekuntza** da. Bi ebaluazio hauen emaitzen azterketa eta balorazioa egin ondoren hobekuntza planak egin beharko dira, bai ikastetxeek zein euskal hezkuntza sistema osoak ikasleen irteera profilarren lorpen hoberena eskura dezaten.

17. Zertan datza Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoaren ebaluazio formatiboa, noiz egiten da eta nork egiten du?

Ebaluazio formatiboak ikaskuntza-prozesuaren garapen eta eboluzioaren berri ematea du helburu, **erabakiak hartzeko eta prozesua ikasleen beharretara egokitzeko**.



Ikaskuntza-prozesu osoan zehar egiten da.

Ikastetxe bakoitzeko irakasleek egiten dute.

18. Zertan datza Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoaren azken ebaluazio sumatiboa, noiz egiten da eta nork egiten du?

Azken ebaluazio sumatiboak ikasleek ikaskuntza-prozesuaren amaieran ikasi dutena neurtzen du. Emaitza (kalifikazioa) eskaintzen du eta erabaki administratiboak (**maila edo etapa bat gainditzea, promozionatzea edo titulua lortzea**) eragiten ditu. Erabaki hauek ebaluazio irakasle taldeak hartzen ditu.

Ikaskuntza-prozesuaren amaieran egiten da.

Ikastetxe bakoitzeko irakasleek eurek egiten dute.

19. Aldatu behar da ebaluazio diagnostikoen eredua? Zergatik?

Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak proposatzen duen **ikasleen irteera profilera egokitu behar** delako.

20 . Zein ebaluazio eredua planteatzen du Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak?

Heziberri 2020 Planak hezkuntza eredu pedagogikoarekin ebaluazio koherentea planteatzen du. **Konpetentzietan oinarritutako ebaluazioa** da eta gure **ikasle guzti-guztiek** etapa bukaeran **irteera profila** osatzen duten **oinarrizko zehar konpetentziak zein oinarrizko diziplina baitako konpetentziak** lortzea du helburu. **Hobekuntzarako** ebaluazioa da eta ikastetxeetako barne-ebaluazioaren (diagnostikoa, formatiboa eta azken ebaluazio sumatiboa) eta kanpo-ebaluazioaren (diagnostikoa bakar-bakarrik) **osagarritasunean** oinarritzen da.

Ebaluazio nagusia ikastetxeek egiten duten barne-ebaluazioa da, konpetentzia guztiak ebaluatzeko gai den ebaluazio bakarra baita. Dena dela, Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak ebaluazio diagnostikoa **sistemaren hobekuntzarako funtsezko elementu** jotzen du, ikastetxeek egiten dutena



osatzen baitu eta balio erantsi bezala eskaintzen baitu **zorrotasuna, fidagarritasuna** eta **alderagarritasuna**. Horretarako, ikastetxeetako ikasleen testuinguruaren araberako alderdi sozioekonomiko eta kulturalak kontutan hartzen ditu.

Planteamendu hauek ez dira berriak. Bai **2008ko abenduaren 2ko aginduan**, gure hezkuntza sistemaren ebaluazio diagnostikoa arautzen zuena, ("*Orain arte, ordea, ikastetxeek ez dute beren egoera behar bezala ebaluatzea eta epe ertainean izan duten bilakaera ezagutzea ahalbidetuko dien kanpoko erreferentzia garbirik izan, gaur egun ikastetxeetan dauden ebaluazio-prozesuak eta, horrenbestez, ikasleen arrakasta edo porrota neurtzeko emaitzak barneko hezkuntza-irizpideen eta prozedura partikularren arabera xedatzen direlako; beraz, horrela lortutako emaitzak nekez dira alderagarriak.*"), bai 2010eko otsailaren 11ko ebazpenean, ebaluazio diagnostikoa aplikatzeko jarraibideak ematen zituena ("*Ebaluazio diagnostikoaz aritzean, ulertu behar da prozesu bat dela, eta ikastetxeak eta, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistema hobetzen laguntzen duela, datu zorrotzak eta fidagarriak emango dituelako, eta datu horiek baliagarriak izango direlako irakasle-taldeen eta hezkuntza-komunitate osoak hausnarketa egiteko.*"), jasotzen baitzituzten. Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak planteatzen dituen ebaluazio diagnostikoak etaparen erdian eta amaieran egingo dira.

21. Zergatik planteatzen da etapa erdiaren ebaluazioa Lehen Hezkuntzako

3. mailan?

Ebaluazio diagnostikoa **ez dago ikasturte, ziklo eta etapa jakin baten amaierarekin derrigorrez lotuta**. Funtsezkoa dena ebaluazioaren helburua zein den eta nori zuzenduta dagoen jakitea da, kontu handiz diseinatzeko, mugatzeko eta planifikatzeko, eta berme guztiekin aplikatzeko.



Hezkuntza eredu pedagogikoaren barruan etapa erdian planteatzen den ebaluazioaren helburua ikaskuntza-prozesuaren egoera **ahalik eta azkarren diagnostikatzea** besterik ez da, modu horretan hobetzen lagundu ahal izateko. Hori dela eta, gure ikasleentzat barne-ebaluazio diagnostikoa 3. mailan egitea positiboa **da balio erantsia** eskaintzen baitigu, Hobekuntza Planaren bitartez, **ahalik** eta azkarren esku hartzeko aukera alegia, eta gainera, denbora gehiago eskaintzen digu modu eraginkorrean esku hartzeko gure ikasle guzti-guztiek etapa amaieran irteera profila lor dezaten.

Lehen Hezkuntzako 3. mailan ikasle guztiek irakurketa-idazketa prozesua, eskolatzeko garapen egokia bermatzeko oinarria dena, bukatuta izango dute. Hori dela eta, momentu egokia da ikastetxe bakoitzean ebaluazio diagnostikoaren emaitzen inguruko hausnarketa bultzatzeko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen hobekuntza orokorra sustatzen dituzten ekintza koordinatuak aurrera eramateko.

22. Zertan datza Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak planteatzen duen etapa erdiko ebaluazio diagnostikoa, noiz egiten da eta nork egiten du?

Etapa erdian **ikaskuntza prozesuaren egoera ezagutzeko eta hobetzen laguntzeko** konpetentzietan oinarritutako ebaluazioa da. **Ikastetxeen irakasleek** egiten dute eta **zer eta nola ebaluatu erabakitzen dute**. Hobekuntza Planak egiteko balio du. Ebaluazio diagnostikoaren emaitzekin familientzako txosten bat egingo dute.

23. Zein da 3. mailan egiten den barne-ebaluazio etengabekoaren eta ebaluazio diagnostikoaren arteko desberdintasuna?

Ikastetxeen barne-ebaluazio etengabekoa irakasle bakoitzak **bere** ikasleen **taldean** egiten du ikaskuntza-prozesu osoan zehar. **Norberaren probak** erabiliz



egiten da, hau da, irakasle bakoitzak ebaluazioa egiteko tresnak bere kaxa egiten ditu. Ebaluazio honen bitartez, irakasleak bere taldeko ikasleen ikaskuntza prozesuaren garapenari buruzko datuak jasotzen ditu, eta bere kabuz aztertzen ditu bere irakaskuntza prozesua bere ikasleen beharretara egokitzeko.

Banakako hobekuntza ekintzak planteatzeko balio du.

Ebaluazio diagnostikoak **proba estandarizatuen bitartez** ikaskuntza prozesuaren garapenari buruzko datuak jasotzea eta aztertzea du helburu. Proba hauek ez dira talde jakin batean aplikatzen, baizik eta **maila jakin baten talde guztietan**. Ebaluatu behar diren konpetentziak zenbateraino lortu diren adierazteko datuak biltzen eta modu globalean aztertzen dira. Irakasle guztiek batera hausnarketa egiteko eta **banakako zein taldeko eta ikastetxeko hobekuntza ekintzak** planteatzeko balio du.

24. Zein da etapa erdiko ebaluazioan Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak duen papera?

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, konpetentzietan oinarritutako ebaluazioa bai Europako hezkuntza sistementzat bai gure sistemarentzat erronka handia izaten jarraitzen duela jakinda, **Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeare (ISEI-IVEI) adituen eta Berritzeguneetako aholkularien bitartez, ikastetxeei laguntza** eskainiko die. ISEI-IVEIren egitekoa ikastetxeei ebaluazio diagnostikoaren ereduak eskaintzea izango da. Eredu horietan agertzen diren itemak testatu dira beren fidagarritasuna eta zorroztasuna bermatzeko. Ikastetxeek beren ikasleen ebaluazio diagnostikoa egiteko eredu hauek aplikatzeko, egokitzeko edo eredu propioak erabiltzeko aukera izango dute. ISEI-IVEIko ereduak, aldaketarik gabe, erabiliz gero, ikastetxeek ISEI-IVEIk eskainiko dien aplikazio informatiko baten bitartez aukera izango dute familientzako txostenak automatikoki sortzeko. Berritzeguneko aholkulariek



ebaluazio diagnostikoaren inguruko formazioa interesatuta dauden ikastetxeei eskainiko diete.

Hezkuntza Ikuskaritzak ebaluazio diagnostikoaren ezaugarriak azaldu, eta barne-ebaluaziotik sortzen diren Hobekuntza Planaren jarraipena eta ebaluazioa egingo du.

25. Zergatik da beharrezkoa Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak planteatzen duen etapa amaierako ebaluazio diagnostikoa?

Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak oinarrizko ardatza du ikasleen irteera profila lortzea. Ikasleek Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntza amaitzerako lortu behar duten irteera-profil orokor honen ebaluatzeko modua zehazten da Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irteera-profilean. Hori dela eta, sistemak irteera profila zenbateraino lortu den informazio baliagarria eta fidagarria eskaintzen duen kanpo-ebaluazio diagnostikoa behar du, hezkuntza sistamarako beharrezkoak diren hobekuntza neurriak hartu ahal izateko.

26. Nolakoa izango da Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak planteatzen duen etapa amaierako ebaluazio diagnostikoa, noiz egingo da eta nork egingo du?

Konpetentzietan oinarritutako ebaluazioa izango da. Ebaluazio diagnostikoa besterik ez da izango eta etapa amaieran egingo da ikasleek **irteera profila lortu duten jakiteko**. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak **Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI-IVEI) bitartez** egingo du **eta Hobekuntza Planak ezartzeko**, bai ikastetxe mailan bai hezkuntza sistema mailan, balio izango du.



27. Zein izango da etapa amaierako ebaluazioan Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitekoa?

Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI), 2008 urtetik hona ebaluazio diagnostikoetan egin duen bezala, **probak planifikatzeko, diseinatzeko eta aplikatzeko arduraduna** izango da. Horretaz aparte, datu globalak eta partzialak aztertzeko arduraduna eta ikastetxearen eta hezkuntza sistemaren txosten orokorra prestatzeko arduraduna izango da.

28. Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak planteatzen duen ebaluazio diagnostikoa errebalida bat da?

Ez. Errebalida ondorio administratiboak (tituluaren lorpena) dituen kanpoko azken azterketa sumatiboa da. **Azken ebaluazio sumatiboa**, orain arte bezala, irakasleek bakar-bakarrik **egingo dute**, hau da, **ikasleen talde bakoitzaren ebaluazio taldeek**.

29. Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoaren ebaluazio diagnostikoen datuek balio dute edo balio izango dute ikastetxeen rankingak egiteko?

Ez. 2008 urtetik hona egin den bezala, ebaluazio diagnostikoen datuak eta emaitzak identifikatu ahal ez izateko moduan biltzen eta gordetzen dira. **Isilpekotasuna bermatzen da** kode alfazenbakizkoak erabiliz, izen bereziak edo ikastetxeen izenak ezagutzea eragozteko. Gure ebaluazio diagnostikoei **ez dute inola ere balio eta etorkizunean ez dute balio izango ikastetxeen rankingak egiteko**.

30. Ebaluazio diagnostikoa test moduko azterketa da?

Ez. Test moduko azterketa bat gure hezkuntza eredu pedagogikoak planteatzen duen **konpetentzietan oinarritutako ebaluazioarekin bateraezina da**.



31. Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoaren ebaluazio diagnostikoez badute ondorio akademikorik?

Ez. Ebaluazio diagnostikoa besterik ez da. Lortutako emaitzen azterketa eta balorazioaren ondorioz hobekuntza prozesuak sustatu daitezke, bai banakakoak, bai ikastetxeak, bai hezkuntza sistema osoarenak.

32. Heziberri 2020 Planaren hezkuntza eredu pedagogikoak planteatzen duen ebaluazio ereduaren barruan, nork eta nola ebaluatzen du erabakitzeke ea ikasle bat ikasmilaz pasatzen den, Lehen Hezkuntza Derrigorrezko Hezkuntzara promozionatzen duen edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortzen duen?

Edozein ondorio administratibo duen ebaluazioa, adibidez mailaz igotzea, Lehen Hezkuntza Derrigorrezko Hezkuntzara promozionatzea edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortzea, **bakar-bakarrik**, orain arte izan den bezala, **ikastetxe bakoitzeko irakasleen ardura** da. Ikastetxeek egiten duten ebaluazio etengabekoaren bitartez egiten da.